| **Ardatz estrategikoa:** | **6. ardatza.- Elkarrekin sortuz berritzea** | **Proiektua:** | **6.1. Profesionalengandik berritzea** |
|---|---|---|---|

**Deskribapena**

Sendotu eta zabaldu egin nahi dira sare profesionalak, Praktika Komunitateak eta Berrikuntza Lantaldeak, BPP 2011-2013ren barruan abiaraziak, ikasketa partekatua, elkarlana eta sare-antolaketa sustatzearren, eta antolaketa-gune fisikoak eta birtualak sortuz, errazagoak eta eraginkorragoak izan daitezen langile publikoen arteko komunikazioak, hori funtsezkoa baita etengabe hobetzeko eta berriztatzeko.

**Helburu nagusiak:**

- Ikasketa partekatua, elkarlana eta sare-antolaketa sustatzea.
- Langile publikoek zerbitzuen kudeaketa eta berrikuntza hobetzen parte har dezaten sustatzea.

**Helburu operatiboak:**

- Sare, CoP eta Eqls-etan sartutako pertsonak:

| Abe. 2014 | Abe. 2015 | Abe. 2016 |
|---|---|---|
| 1.200 | 1.600 | 2.400 |

**Adierazleak:**

- Berrikuntza-prozesuetan edo -ekimenetan sartutako pertsonak. Horrek esan nahi du Praktika Komunitateetan edo Berrikuntza Lantaldeetan parte hartzea.

**Egikaritzea:**

2014-2016ko BPPak jorratzen dituen esparru guztiak bultzatzeko giza baliabide nahikorik ez dagoenez, proiektuei lehentasuna eman, eta proiektuen arduradunen partaidetza lehentasun horien arabera banatu behar izan da berriro. Proiektu hau kaltetuetako bat izan zen plana hasi zen egunean bertan abiarazitako berrantolaketa hartan.

Hala, proiektu horren arduraldia, alde batetik, sare profesional horiei laguntzeko eta eusteko lanetara mugatu da, eta, nagusiki, aktibo egon arren DACIMAren lankidetza behar zuten praktika-komunitateei laguntzera; eta, beste alde batetik, BPP honen testuinguruan (ikusi a azpiproiektu bakoitzean) lankidetza-talde berriak sortzera (jardunbide-komunitateak edo antzekoak). Horietako batzuek, gainera, gainditu egiten dute Eusko Jaurlaritzaren beraren lankidetza-esparrua.

Proiektu honen azpiproiektuek askotariko aurrerapenak izan dituzte (ikusi azpiproiektuen Egikaritze-maila).

| **Arduraduna:** | **Aurrekontua:** | **Gastu erreala:** | **Aurreikusitako denbora-tartea:** | **Egikaritzeko benetako epea:** | **Egoera:** | **Balorazioa:** |
|---|---|---|---|---|---|---|
| DACIMA | 2014: 25.000,00 €<br>2015: 25.500,00 €<br>2016: 26.010,00 €<br>GUZTIRA: 76.510,00 € | 2014: 29.219,67 €<br>2015: 0,00 €<br>2016: 0,00 €<br>GUZTIRA: 29.219,67 € | Epea: 3 urte<br>Hasiera: 2014ko urtarrila<br>Amaiera: 2016ko abendua | Hasiera:<br>Amaiera: | ☐ Amaitua<br>■ Aribidean<br>☐ Hasi gabe | ☐ Positiboa<br>■ Hala-nolakoa<br>☐ Negatiboa |

**Oharrak:**